

**BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA**  
**ADMINISTRATZAILE JAUNA**

Aita Larramendi, 3

**48012 – BILBO**

Santurtzin, 2016(e)ko urtarrilaren 8(e)(a)n

**Gaia: IRAGARKIA(K) ARGITARATZEA.**

Arren, ondoren adierazten diren eta idazki honekin batera igortzen diren iragarki hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ahalik eta arinen argitaratzeko eskatzen dizut:

- **BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN ADMINISTRAZIO BATZORDEAREN EBAZPENA; HORREN BIDEZ, "BILBOKO PORTUAREN ZERBITZU-GUNEAN ERREPIDE BIDEZKO LEHORREKO GARRAIOAREN MERKATARITZA-ZERBITZUA GARATZEKO BAIMENEN BALDINTZA BEREZIEKIN AGIRIA" ONARTZEN DA.**

Agur eta ondo izan,

BILBOKO PORTUKO AGINTARITZA AUTORIDAD PORTUARIA DE BILBAO Erregistro Orokorra / Registro General	
- 8 ENE 2016	
IRTEERA / SALIDA	OF. 2
ZK./Nº	4

**BOLETÍN OFICIAL DE BIZKAIA****SR. ADMINISTRADOR**

Padre Larramendi, 3

**48012 – BILBAO**

Santurtzi, 8 de enero de 2016

**Asunto: PUBLICACIÓN DE ANUNCIO(S).**

Se ruega la inserción en el Boletín Oficial de Bizkaia, a la mayor brevedad posible, de los siguientes anuncios, que adjunto se remiten:

- **RESOLUCIÓN DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN DE LA AUTORIDAD PORTUARIA DE BILBAO POR LA QUE SE APRUEBA EL PLIEGO DE CONDICIONES PARTICULARES DE LAS AUTORIZACIONES PARA EL DESARROLLO DEL SERVICIO COMERCIAL DE TRANSPORTE TERRESTRE POR CARRETERA EN LA ZONA DE SERVICIO DEL PUERTO DE BILBAO.**

Atentamente le saluda,

**Juan Carlos Verdeal Pinto**Herri Jabari eta Zerbitzu Juridikoen Sailaren Burua  
Jefe del Departamento de Dominio Público y Servicios Jurídicos

## **BILBOKO PORTUKO AGINTARITZA**

### **BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN ADMINISTRAZIO BATZORDEAREN EBAZPENA; HORREN BIDEZ, "BILBOKO PORTUAREN ZERBITZU-GUNEAN ERREPIDE BIDEZKO LEHORREKO GARRAIOAREN MERKATARITZA-ZERBITZUA GARATZEKO BAIMENEN BALDINTZA BEREZIEEN AGIRIA" ONARTZEN DA.**

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Batzordeak 2015eko abenduaren 17an egindako bilkuran, Bilboko Portuaren zerbitzu-gunean errepide bidezko lehorreko garraioaren merkataritza-zerbitzua garatzeko baimenen baldintza berezien aurrekarien berri eman zen. Horrez gain, aipatutako merkataritza-zerbitzua erregulatzeko baldintza berezien agiriaren proiektuari dagokionez, agenteei, kontrol-organoei eta operadoreei emandako entzunaldiaren emaitzen berri eman zen, bai eta Portuko Erakundearen Zuzendaritzak horren gainean egindako ebazpen-proposamenaren txostenaren berri ere. Txosten horren eduki xehea berresten du ebazpen honek. Hortaz, irailaren 5eko 2/2011 Errege Lege Dekretuak onesten duen Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bateginaren 139.2. artikulua xedatzen dituen aurreikuspenen arabera, aipatutako gobernu-organismoak, egindako bilkura horretan, honako hau ebatzi du aho batez:

- 1.- "Bilboko Portuaren zerbitzu-gunean, errepide bidezko lehorreko garraioaren merkataritza-zerbitzua garatzeko baimenen baldintza berezien agiria" onestea, erantsi den dokumentazioaren arabera.
- 2.- Akordio hori argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bilboko Portuko Agintaritzaren webgune korporatiboetan eta egoitza elektronikotan.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea aldatu duen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 109. artikuluko c) atalean xedatutakoari jarraiki. Haren kontra aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkez daiteke, hilabeteko epean, aipatutako legearen 117. artikulua araber, edo zuzenean administrazioarekiko auzien errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, interesdunari ebazpen honen berri eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 8-3. artikuluetan, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1 m) eta 46. artikuluei dagokienez.

Santurtzin, bi mila eta hamabosteko abenduaren hamazazpian.

Presidentea  
Asier Atutxa Zalduegi



Idazkaria  
Juan Carlos Verdeal Pinto

## ERANSKINA

### **BILBOKO PORTUAREN ZERBITZU-GUNEAN ERREPIDE BIDEZKO LEHORREKO GARRAIOAREN MERKATARITZA-ZERBITZUA GARATZEKO BAIMENEN BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA**

#### **1. kapitulua - LEGEZKO OINARRIA**

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina (EPNZLTB) onartu duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren lehenengo liburuaren VI. tituluko V. kapituluak ezartzen du merkataritza zerbitzu direla, portuko zerbitzuaren izaera izan gabe, portuko jarduerari lotuta dauden merkataritzako jarduerak.

Jarduera horiek gauzatzeko, Portuko Agintaritzaren baimena eskuratu beharko da. EPNZLTBren 139.2. artikulua ezartzen duenaren arabera, merkataritzako zerbitzuak Portuko Agintaritza bakoitzak zehazten dituen baldintzetara egokitu beharko dira, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauzko xedapenetara ere.

Hortaz, Bilboko Portuan errepede bidezko salgaien lehorreko garraio-jardueraren garapena merkataritza-zerbitzu bat da eta, ondorioz, Bilboko Portuko Agintaritzaren aurretiko baimena behar du, baldintza berezi hauetan xedatutakoaren arabera.

#### **2. kapitulua - BAIMENAREN ARAUBIDE JURIDIKOA**

Baimenaren titularrak baldintza berezi hauetan xedatutakoaren arabera garatu beharko du bere jarduera. Horrez gain, ondoko hauetan xedatutakoa ere bete beharko du: EPNZLTB; Bilboko Itsasadarreko eta Portuko Erregimenari, Poliziari eta Zerbitzuari buruzko Araudia; Portuetako Poliziari eta Ustiapenari buruzko Araudia; EPNZLTBren 295. artikuluan aurreikusitakoaren arabera onets daitezkeen Portuko Agintaritzaren Portuko Ordenantzak, eta Portuko Agintaritzaren zuzendariak puntualki emandako jarraibideak.

Nolanahi ere, aurreko horrek ez du ezertan eragotziko garatuko den jarduerari aplika dakioken beste edozein arauditan xedatutakoa (sektoriala zein orokorra), bereziki lehia babesteari buruzko araudiari dagokionez.

Baimena emateak izaera arautua izango du. Eskatzaileak beharrezko baldintza guztiak betetzen baditu, ezin izango zaio baimena ukatu, agiri honetan ezarritakoari jarraiki.

### 3. kapitulua - HELBURUA ETA BAIMEN MOTAK

Interes orokorreko portuetan errepide bidezko salgaien lehorreko garraio-jarduera da zati batean portuko zerbitzu-gunean garatzen dena eta zuzenean zerikusia duena gune horretara salgaiak sartzearekin edo ateratzearekin.

Jarduera horrek barne har ditzake (banaka zein batera) portuko terminal batean salgaiak jasotzeko edo emateko operazioak. Horrenbestez, definizio horrek barne hartzen du portuko zerbitzu-guneko sarbidetik *dépôt*etara edo salgaien terminalaletara errepide bidez egiten den salgaien lehorreko garraio-jarduera, bai eta, alderantziz, *dépôt*etatik edo salgaien terminalaletatik portuko zerbitzu-guneko irteerara egiten dena ere.

Nolanahi ere, berariaz bazterten dira beren ezaugarrien edo izaeraren arabera salgaiak manipulatzeko portuko zerbitzutzat jo daitezkeen operazioak, EPNZLTBren 130. eta 131. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Baldintza berezi horiek gutxiengoak dira, eta garatzen diren inguruneagatik edo jardueragatik aplikagarriak diren beste baldintza batzuei kalte egin gabe ezartzen dira, kontuan hartuta, bereziki, zerbitzua emateko baimenak ez duela titularra salbuesten beste herri-administrazio batzuek beraien eskumeneko eremuan legalki exijitzen dituzten lizentziak eta baimenak eskuratzetik eta horiek egunean izatetik.

Bilboko Portuko Agintaritzak honako titulu hauek ematen ditu Bilboko Portuko zerbitzu-gunean errepide bidez salgaien lehorreko garraio-jarduera garatzeko: Baimen Generikoak (1) eta Baimen Espezifikoak (2).

**Baimen Generikoak (aurrerantzean BG)** titularrari baimena ematen dio Bilboko Portuko zerbitzu-gunean, errepide bidez, lehorreko garraio-jarduera hiru urtez garatzeko, gidari, traktore eta atoi jakin batzuekin, baldintza berezi hauetan ezarritakoaren arabera. Horrez gain, titularrak Bilboko Portuko Sarrerari eta Irteerari buruzko protokoloa bete beharko du portura sartu ahal izateko.

**Baimen Espezifikoak (aurrerantzean BE)** titularrari baimena ematen dio Bilboko Portuko zerbitzu-gunean, errepide bidez, lehorreko garraio-jarduera berrogeita zortzi orduz garatzeko, gidari, traktore eta atoi jakin batekin, baldintza berezi hauetan ezarritakoaren arabera. Horrez gain, titularrak Bilboko Portuko Sarrerari eta Irteerari buruzko protokoloa beteko du portura sartu ahal izateko.

### 4. kapitulua - ESKATZAILEEN BETEBEHARRAK

Martxoaren 20ko Sustapen Ministerioiko 734/2007 Aginduak edo agindu hori ordezkatzeko duen araudiak arautzen duen salgaien garraiorako baimena duten eta/edo Sustapen Ministerioaren Garraioaren Jarduera Osagarrien eta Gehigarrien Enpresen eta Garraiolarien Erregistro Orokorraren datu-basean (SITRAN) erregistratuta dauden pertsona fisiko edo juridikoek eskatu ahal izango dituzte aurreko baldintzan aipatzen diren baimenak.

Aipatutako baimena ez duten eta Europar Batasuneko kide diren estatuetak eskatzaileek dagokion erkidegoko lizentzia eduki beharko dute. Aipatutako baimena ez duten eta Europar Batasuneko kide ez diren estatuetak eskatzaileei dagokion aldeko baimena edo baimen aldeaniztuna eskatuko zaie.

## **5. kapitulua - ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

### **1.- BG eskatzeko aurkeztu behar den dokumentazioa:**

- a) Baimen Generikoaren eskaera Bilboko Portuaren zerbitzu-gunean, errepide bidez, lehorreko garraioaren merkataritza-zerbitzua garatzeko berariazko onarpenarekin.
- b) Eskatzailearen eta eskatzailearen izenean eskaera aurkezten duen ordezkariaren nortasuna frogatzen duen agiria.

Pertsona fisikoek nortasun-agiri nazionalaren bitartez egiaztatuko dute beren nortasuna. Pertsona juridikoek, aldiz, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta dagoen eraketa-eskriuraren edo aldarazpen-eskriuraren bidez egiaztatuko dute beren nortasuna. Atzerriko enpresek eraketa-dokumentuak modu ofizialean gaztelaniara edo euskarara itzulita aurkeztu beharko dituzte. Europar Batasuneko kide ez diren estatuetak edo Europako Eremu Bakarraren gaineko Akordioa izenpetu ez duten estatuetak pertsona juridikoek dagokion Espainiako ordezkariak diplomatikoak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Bertan jaso beharko da tokiko lanbide- edo merkataritza-erregistroan edo antzekoan inskribatuta dagoela, edo, horrelakorik ez badago, baldintza berezietan barne hartzen diren jardueren eremuan tokiko trafikoan jardun ohi duela.

Inoren izenean agertzen diren pertsonak edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonak, horretarako ahalordea aurkeztu beharko dute, bai eta notarioak egiaztatutako NANaren fotokopia edo kopia konpultsatua. Bilboko Agintaritzak egiaztapen administratiboa egin dezan, interesdunek dagokion bulegora jo ahal izango dute alde aurretik, eta NAN originalarekin batera horren kopia bat aurkeztu beharko dute. Edukiaren nortasuna egiaztatu ostean eskatzaileari dokumentu originala itzuliko zaio, eta kopia hori aurkeztutako dokumentazioari gehituko zaio, dagokion zigilu ofizialarekin egiaztatua izan ostean. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalorde horrek Merkataritza Erregistroan egon beharko du inskribatua. Egintza zehatz baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, Merkataritza Erregistroaren Araudiaren 94.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

- c) 4. kapituluko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duen dokumentazioa.

- d) Harremanetan jartzeko datuak (helbidea, telefono zenbakia (finkoa edo mugikorra) eta/edo helbide elektronikoa eta/edo fax zenbakia eta, hala badagokio, webgunea).
- e) Traktorea edo traktoreak eta atoa edo atoiak identifikatzeko agiriak (MDP txartelak eta zirkulazio-baimenak) eta kasuan kasuko zirkulaziorako gaikuntza.
- f) Gidaria edo gidariak identifikatzeko dokumentazioa: izen-abizenak, NAN, telefono zenbakia eta/edo helbide elektronikoa eta/edo fax zenbakia, bakoitzaren gaikuntza (dagokion motako gidabaimena, gaitasun profesionalaren ziurtagiria, salgai arriskutsuak garraiatzeko ziurtagiria, eta abar) eta argazkia.

## **2.- BE eskatzeko aurkeztu behar den dokumentazioa:**

- a) Baimen Espezifikoaren eskaera Bilboko Portuaren zerbitzu-gunean, errepide bidez, lehorreko garraioaren merkataritza-zerbitzua garatzeko berariazko onarpenarekin.
- b) Eskatzailearen eta eskatzailearen izenean eskaera aurkezten duen ordezkariaren nortasuna frogatzen duen agiria.

Salbuespen gisa, baimen espezifikoaren eskaera aurrez aurre egiten den kasuetan, BEren eskatzailea ibilgailuaren gidaria izan arren ez baldin bada salgaiak garraiatzeko baimenaren titularra, gidariak BEren eskaera hori salgaiak garraiatzeko baimenaren titularra den eta gidariari lana emate dion pertsona fisiko edo juridikoaren pentzura egiten duela ulertuko da. Kasu horretan, nahikoa izango da d) eta e) ataletako dokumentazioa aurkeztea.

- c) 4. kapituluko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duen dokumentazioa.
- d) Harremanetan jartzeko datuak (helbidea, telefono zenbakia (finkoa edo mugikorra) eta/edo helbide elektronikoa eta/edo fax zenbakia eta, hala badagokio, webgunea).
- e) Ibilgailuaren gidariaren identifikazio-agiriak: izen-abizenak, NAN, telefono zenbakia eta/edo helbide elektronikoa eta/edo fax zenbakia eta gaikuntza (dagokion motako gidabaimena, gaitasun profesionalaren ziurtagiria, salgai arriskutsuak garraiatzeko ziurtagiria, eta abar).
- f) Traktorea eta atoa identifikatzeko agiriak (MDP txartela eta zirkulazio-baimena) eta kasuan kasuko zirkulaziorako gaikuntza.

Dokumentu originalak edo kopia konpultsatuak aurkeztu ahal izango dira. Bilboko Portuko Agintaritzak egiaztapen administratiboa egin dezan, dokumentu originalekin batera horien kopia aurkeztu ahal izango da. Dagokion bulegoan dokumentu originalak eta kopiak erkatu ondoren, aurkeztutako dokumentazioari kopia hori gehituko zaio, dagokion zigilu ofizialarekin egiaztatuta ostean.

## **6 kapitulua - ESKABIDEEN AURKEZPENEA ETA IZAPIDETZEA**

### **1.- BGren eskabideen aurkezpena eta izapidetzea.**

#### **1.1. Eskabidearekin batera 5. kapituluko 1. atalean adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko dira.**

Hala egin ezean, Bilboko Portuko Agintaritzak hamar eguneko epean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio eskatzaileari. Halaber, ohartaraziko dio hala egin ezean, eskaria bertan behera uzten dela ulertuko dela; aldez aurretik Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 42. artikuluan xedatutakori jarraiki ebazpena eman beharko delarik.

#### **1.2. Eskabidea Bilboko Portuko Agintaritzaren erregistroan / erregistro elektronikoa aurkeztu beharko da.**

Paperean aurkeztutako eskabideak Portuko Agintaritzan aurkeztu beharko dira. Bertan erregistratu, izapidetu eta ebatziko dira. Eskabideak Portuko Agintaritzaren erregistro elektronikoaren bitartez aurkezteko aplikagarriak diren arauetan xedatutakoa bete beharko da.

#### **1.3. Ebazpena emateko eta jakinarazteko legez ezarritako gehienezko epea hiru hilekoa da, eskatutako dokumentazio guztia aurkezten den unetik aurrera zenbatzen hasita.**

EPNZLTBren 139.4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, baimena eman dela ulertuko da, hiru hileko gehienezko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada.

Hala eta guztiz ere, hilabeteko epean (eskatutako dokumentazio guztia aurkezten den unetik aurrera zenbatzen hasita) ez bada inolako ebazpenik eman, epe horretan Bilboko Portuko Agintaritzak ebazpen bat emango du, behin behineko baimena igorritz. Baimen horrek behin betiko baimen baten eragin bera izango du Portuko Agintaritzak dagokion behin betiko ebazpena ematen duen arte.

Portuko Agintaritzak dagokion titulua (edo tituluak), kasuan kasu ezarri den euskarrian, luzatzen duenean formalizatuko da Baimen Generikoa. Baimenean baimenduaren identifikazio-datuak jasoko dira, bai eta traktoreen, atoiaren eta gidarien identifikazioa ere.

#### **1.4. Bilboko Portuko Agintaritzak eskaerari buruz emandako ebazpena (edo ebazpenak) jakinaraziko dio eskatzaileari.** Horrez gain, baimenean barne hartutako gidarien identifikazio-txartelak jarriko ditu bere eskura, bai eta "Gune komunitario lan-arriskuak eta prebentzio-neurriak" jarraibideen azken berrikuspenaren ale bat ere.

Eskatzaileak gehienez ere hamar egun izango ditu txartel horiek jasotzeko, jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera zenbatzen hasita.



## **2.- BEren eskabideen aurkezpena eta izapidetzea.**

### **2.1. Eskabidearekin batera 5. kapituluko 2. atalean adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko dira.**

Hala egin ezean, BGren eskabideak zuzentzeko prozedura bera jarraituko da, eta eskabidea izapidetzeke geratuko da zuzenketa egiten den arte.

### **2.2. Eskabidea Bilboko Portuko Agintaritzaren erregistroan / erregistro elektronikoan aurkeztu beharko da.**

Paperean aurkeztutako eskabideak Portuko Agintaritzan aurkeztu beharko dira. Bertan erregistratu, izapidetu eta ebatziko dira. Eskabideak Portuko Agintaritzaren erregistro elektronikoaren bitartez aurkezteko aplikagarriak diren arauetan xedatutakoa bete beharko da.

### **2.3. Eskabideak 5. kapituluko 2. atalean eskatutako baldintzak betetzen baditu baimena emango da ahalik eta arinen eta betiere bi egun igaro baino lehen, eskatutako dokumentazio guztia aurkezten denetik aurrera zenbatzen hasita.**

Dagokion titulua (edo tituluak), kasuan kasu ezarri den euskarrian, luzatzen denean formalizatuko da Baimen Espezifikoa. Titulua honako hau izango da: gidariari, traktoreari (atoiak) eta berariazko operazioari buruzko identifikazio-datuak jasotzen dituen dokumentua, helmugako *dépôt*ean/terminalean aurkeztu beharko dena.

BErekin batera, "Gune komunitario lan-arriskuak eta prebentzio-neurriak" jarraibideen azken berrikuspenaren ale bat emango da.

## **3.- Dagokion txartela/titulua izapidetu eta eman baino lehen Bilboko Portuko Agintaritzak onetsitako tarifak, unean uneko indarreko kostuen arabera, ordaintzeko eskatu ahal izango zaio eskatzaileari.**

## **7. kapitulua - BAIMEN GENERIKOEN ALDAKETAK**

Baimen Generikoaren (BG) titularrak edozein unetan eska diezaiokie Bilboko Portuko Agintaritzari baimen hori aldatzeko, traktoreen, atoiaren eta/edo gidarien inguruko datuen aldaketari dagokionez.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta aldaketak egiteko eskaeren izapidetzea baldintza berezi hauetako 4. eta 5. kapituluetan aurreikusi dena izango da. Kasu honetan, ordea, eskaeraren xedea dagoeneko emandako baimen baten aldaketa da.

## **8. kapitulua - BAIMEN GENERIKOAREN INDARRALDIA ETA BERRIZTAPENA**

Baimen Generikoa (BG) berritzeko izapidetze- eta aurkezpen-baldintzak baldintza berezi hauetako 5. eta 6. kapituluetan aurreikusitakoak dira. Kasu honetan, ordea, eskaeraren xedea dagoeneko emandako baimen bat berritzea da. Betiere, baimenak

indarrean egon beharko du berritzeko eskaera egiten denean, unean uneko indarreko baldintza berezietan xedatutakoaren arabera.

Nolanahi ere, Baimen Generikoaren (BG) indarraldia hiru urtekoa den arren, baldintza berezien agiri honetako 3. kapituluak xedatzen duen moduan, BG hori dagokion salgaiak garraiatzeko baimenaren menpe egongo da; izan ere, azken baimen hori edukitzea Baimen Generikoa eskuratzeko derrigorrezko baldintza da.

## **9. kapitulua - BAIMEN-ESKAEREI BURUZKO EBAZPENA**

Portuko Agintaritzaren Administrazio Batzordeak zehaztuko du zein izango den baimen generikoen eta espezifikoen eskaerak ezagutu eta ebatziko dituen organo eskuduna, eta administrazio-araudian aurreikusitako eskuordetze-mekanismoa erabili ahal izango du.

Soilik bidezko arrazoiren bat egonez gero ukatu ahal izango zaio baimena eskatzaileari, baldintza berezien agiri honetan aurreikusitakoari jarraiki.

Administrazio Batzordeak horren inguruan ematen dituen ebazpenak baldintza berezien agiri honi erantsiko zaizkio.

## **10. kapitulua - ERABILTZAILAILEEN ZENTSUA: TITULARRAK, TRAKTOREAK ETA GIDARIAK**

### **1.- Baimen Generikoen (BG) zentsua**

Informazio guztia bildu ostean, Bilboko Portuko Agintaritzak *Baimen Generikoen* gaineko hiru datu-base sortu eta puntualki eguneratuko ditu:

- a) *Baimen Generikoen* titularren zentsua
- b) *Baimen Generikoei* lotutako traktoreen eta atoiaren zentsua
- c) *Baimen Generikoei* lotutako gidarien zentsua

Datu-base horiek Bilboko Portuko Agintaritzak erabili ahal izango ditu soilik. Hala eta guztiz ere, lehia babesteari buruzko araudian eta datu pertsonalak babesteko legeetan xedatutakoa zorrotz betez eta interesdunentzako berme guztiekin, datu-base horiek portuko jarduna arintzeko proiektu global batean barne hartu ahal izango dira (terminalekin eta beste administrazioekin datuak trukatzeko), betiere portuak aurreikusitako asmoa ez diren xede potentzialak saihestuko dira.

### **2.- Baimen Espezifikoen (BE) zentsua**

Informazio guztia bildu ostean, Bilboko Portuko Agintaritzak *Baimen Espezifikoen* gaineko hiru datu-base sortu eta puntualki eguneratuko ditu:

- a) *Baimen Espezifikoen* titularren zentsua
- b) *Baimen Espezifikoen* gidarien zentsua

c) *Baimen Espezifikoei* lotutako traktoreen eta atoi en zentsua

Datu-base horiek Bilboko Portuko Agintaritzak erabili ahal izango ditu soilik. Hala eta guztiz ere, lehia babesteari buruzko araudian eta datu pertsonalak babesteko legeetan xedatutakoa zorrotz betez eta interesdunentzako berme guztiekin, datu-base horiek portuko jarduna arintzeko proiektu global batean barne hartu ahal izango dira (terminalekin eta beste administrazioekin datuak trukatzeari).

## **11. kapitulua - SARTZEKO KONTROLA ETA ARAUBIDEA**

Bilboko Portura garraiorako ibilgailu astunak sartzeko eta bertatik irteteko protokolo bat dago, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Batzordearen ebazpen bidez onetsi zena 2012ko azaroaren 19ko bilkuran, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena 2012ko abenduaren 28an.

Protokolo horrek printzipio orokor bati erantzuten dio: ibilgailuak zein pertsonak portuko esparrura sartzeari eta bertan gelditzea egoki arrazoituta egon behar da portuaren jardunarekin zerikusia duen eginkizun, zerbitzu edo garraio jakin baten burutzapenarekin. Helburua pertsonen eta ibilgailuen zirkulazioa kontrolatu eta erregistratzea da, bai eta portuko esparruaren kudeaketa logistikoa optimizatzea eta segurtasun-maila areagotzea ere.

Protokolo hori oinarri hartuta, portura sartu baino lehen, garraio-enpresek alde aurretik ohartarazi beharko dute portura sartzeko asmoa. Horretarako, e-puertobilbao izeneko merkataritza elektronikoko plataforman ([www.epuertobilbao.com](http://www.epuertobilbao.com)) erabilgarri dagoen zerbitzua erabili beharko dute.

Edukiontzia garraiatzen dituzten ibilgailu astunei dagokienez, alde aurreko oharra balioztatu egingo da kontsignatarioaren edo garraioa kudeatzen duen agentearen emate-agiria edo onarpen-agiria (*import/export*) bide elektronikotik jasotzen denean. Beraz, ibilgailu horiek portura sartu ahal izateko derrigorrez bete beharreko baldintza izango da garraio-enpresak alde aurreko oharra bidaltzea eta terminaleko kontsignatarioak emate-agiria edo onarpen-agiria bidaltzea. Emate-agiriak eta onarpen-agiriak e-puertobilbao plataformaren bidez bidaltzen dira.

Aipatutako protokoloa betetzen ez bada, ibilgailuak portuaren barruan egotea arrazoituta ez dagoela ulertuko da eta, beraz, ez da portuko esparrura sartzeko baimenik emango.

## **12. kapitulua - BAIMENDUTAKO GARRAIOBIDEEI LOTUTAKO BETEBEHAR OROKORRAK**

Baimenaren titularrak baimendutako jarduera garatzeko erabiltzen dituen traktoreen eta atoi en baldintza egokiak mantendu behar ditu (ibilgailuen azterketa teknikoa, baimenak, plataformen homologazioa, eta abar). Horretarako aseguru egokiak izenpetu beharko ditu, ekintza eta huts edo arduragabekeriak direla eta eragindako kalte eta galerei

erantzuteko eta, bereziki, jardueraren garapenak portuko zerbitzu-guneari eta Portuko Agintaritzari eragindako kalteetatik eratorritako ardura posibleak estaltzeko.

Illo horretatik, erabiltzen diren traktore eta atoi guztiei dagokienez, baimenaren titularrak bere pentzura kontratatu eta indarrean mantendu beharko ditu aseguru egokiak, baimena indarraldian dagoen bitartean. Aseguruak berariaz estali beharko du ibilgailu horien portu-esparruko zirkulazioa.

Bilboko Portuko Agintaritzak emakidan modu ez iraunkorren barne hartutako garraio-bideak (traktoreak/atoiak) ikuskatu ahal izango ditu, emakiden baldintzetan jasotakoaren arabera eta/edo portuko zerbitzu-gunetik edo terminaletatik irteten edo sartzen direnean.

Baimenean adierazi ez diren gidariek ezin izango dute portuan lan egin, eta ezin izango dira baimenean jaso ez diren traktoreak erabili. Horrez gain, baimenaren titularrak ahalik eta eperik laburrenean jakinarazi behar dio Bilboko Portuko Agintaritzari bere traktoreek edo atoiak jasandako edozein gorabehera, horien segurtasunari eragin dakiokiena eta kaltetutako elementu hori erabiltzeko baldintza zehatzen galera dakarrena.

Halaber, baimenaren titularrak baimenaren esparruko gidarien egoera ezagutu behar du eta Bilboko Portuko Agintaritzari jakinarazi behar dio horiek jasandako edozein gorabehera, gidari gisa jarduteko baldintzen galera dakarrena.

Nolanahi ere, baimenaren titularrak kudeatuko du baimenaren xede den jarduera, bera izanik arrisku eta ustekabeen arduradun bakarra. Halaber, baimendutako jarduera burutzeko baliabide materialak eta beharrezko langileak baimenaren titularraren kontura eta kargura izango dira.

Baimendua izango da hirugarrenei, Bilboko Portuko Agintaritzari berari edo bertako langileei, baimendutako jarduera burutzeko egiten diren jarduketa guztien ondorioz, izaera eta bolumena edozein dela ere, eragiten zaizkien kalte eta galera guztien arduradun.

Horrez gain, baimenaren titularrak portuko zerbitzu-gunearen barruan bere gidariek eragindako kalte edo galerei erantzungo die, gidariei eska dakizkiekeen betebeharrak alde batera utzi gabe.

### **13. kapitulua - BAIMENEN IZAERA PERTSONALA ETA BESTERENEZINA**

1.- Bilboko Portuko Agintaritzak ematen dituen errepide bidezko lehorreko garraiorako baimenen bidez, horietan berariaz jasotako traktoreen, atoiaren eta gidarien bidez merkataritza-zerbitzua burutzeko baimena ematen zaie titularrei. Baimen horiek ezin dira *inter vivos* edo *mortis causa* ekintzen ondorioz besterendu.

Merkataritza-zerbitzua garatzeko Bilboko Portuko Agintaritzak emandako baimenean jaso ez diren gidariak, traktoreak edo atoiak erabiltzea baimena desegiteko kausa izango da, arau-hausleei exijitu dakizkiekeen gainerako betebeharez gain.

2.- Errepide bidez lehorreko garraio zerbitzua burutzeko Bilboko Portuko Agintaritzak ematen dituen baimenak eta baimen horien itzalpean gidari jakin batzuentzako luzatzen diren dokumentuak ezin zaizkie hirugarrenei besterendu.

Era berean, atal honetan xedatutakoa ez betetzea baimena desegiteko kausa izango da, arau-hausleei exijitu dakizkiekeen gainerako betebeharez gain.

#### **14. kapitulua - ARAUBIDE EKONOMIKOA**

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bateginaren 170. artikuluko e) atalak xedatzen duenaren arabera, merkataritza-zerbitzuen titularrak eta, herri jabariaren okupazio pribatiboa egin gabe, bidaiari eta salgaien portuko zerbitzu-guneko sarrerari eta irteerari zuzenean lotutako jardueren titularrek ez dute jarduera horren tasarik ordaindu behar.

Aurrekoa gorabehera, baimenen titularrek txartelak emateagatik tarifak ordainduko dizkiote Bilboko Portuko Agintaritzari, hala ezarriz gero. Tarifa horiek txartelen luzapenen edo berritzeen egiazko kostua oinarri hartuta ezarriko dira.

#### **15. kapitulua - PORTUKO JARDUERA EZ OZTOPATZEA**

Errepide bidezko lehorreko garraioak ez du inoiz portuko ustiapenaren garapen normala oztopatuko, eta alderdi operatiboan Bilboko Portuko Agintaritzak, bere eskumenak erabiliz eta eskumenei buruzko araudia errespetatuz, uneoro ematen dituen protokoloen, argibideen eta jarraibideen menpe egongo da. Interesdunek edozein momentutan eskatu ahal izango dute aipatutako protokoloen, argibideen eta jarraibideen gaineko informazioa.

Errepide bidezko lehorreko garraio-zerbitzua garatzeko Bilboko Portuko Agintaritzak emandako baimenen titularrek eta baimen horien itzalpean baimendutako gidariak jardueraren garapenaren ondorioz oztopo hori gertatzea eta/edo sustatzea eta/edo larriagotzea saihesteko ardura izango dute.

Baimenaren titularrak, bai eta bere gidariak ere, Bilboko Portuko Erregimenari, Zerbitzuari eta Poliziarari buruzko Araudian, edo araudi hori ordeztzen duen xedapenetan eta Bilboko Portuko Agintaritzak onesten dituen portuko jarduerari buruzko jarraibideetan eta ordenantzetan xedatzen dena bete beharko dute.

#### **16. kapitulua - ZERGA- ETA LAN-BETEBEHARRAK. LANEKO ARRISKUEI AURREA HARTZEA**

1.- Baimenaren titularrak aplikagarria den lan-arloko araudia eta laneko arriskuak prebenitzeko araudia bete behar ditu.

2.- Baimenaren titularrak Bilboko Portuko zerbitzu-gunearen esparru osoan, eremu komunetan zein terminaletan eta gordailuetan, baimendutako jarduera garatzeak dakartzan berezko arriskuak ezagutzen ditu.

### **17. kapitulua - ZEHAPEN-ARAUBIDEA**

EPNZLTBean, edo EPNZLTB ordezen, garatzen edoosatzen duen xedapenean, eta aplikagarria den gainerako araudian aurreikusitako zehapen-araubidea aplikatuko zaie Baimen Generikoen (BG) eta Baimen Espezifikoen (BE) titularrei, bai eta horietan barne hartzen diren gidariei ere.

### **18. kapitulua - BAIMENAK AZKENTZEKO ETA ETETEKO ARRAZIOIAK**

#### **18.1. Baimenak azkentzea**

Bilboko Portuaren zerbitzu-gunean, errepide bidez, lehorreko garraioaren merkataritza-zerbitzua garatzeko baimenak honako arrazoiaren ondorioz azkendu daitezke:

1. Salgaiak garraiatzeko baimena iraungi delako.
2. Epearen indarraldia amaitu delako.
3. Bilboko Portuko Agintaritzaren baliogabetzearen ondorioz, funtsezko betebeharrak modu larrian edo oso larrian urratzeagatik, Bilboko Portuko Agintaritzak adierazitakoa, espediente egokia egin aurretik.

Baimena azkentzeko prozeduran, interesdunari entzunaldia bermatuko zaio, aipatu den 2. kasuan izan ezik.

Zehazki, honako kasu hauetan ulertuko da funtsezko betebeharrak modu larrian edo oso larrian urratu direla:

- a) Portuko jarduna oztopatzea, baldintza berezien agiri honetako 11. kapitulan jasotako sarrera-protokoloa ez errespetatzeagatik.
- b) Baldintza berezien agiri honek arautzen dituen baimenak eskuratzeko eskatutako informazioa faltsutzea.
- c) Traktoreek, atoiak eta/edo gidariek bete behar dituzten baldintzen gaineko betebeharrak ez betetzea, bai eta baldintza berezi hauen bidez arautzen diren baimenak emateko eta berritzeko emandako datuen gaineko aldaketak jakinarazteko betebeharra ez betetzea ere.
- d) Baimenaren titularrak edo bere gidarietako batek zehapenen bat jasotzea arauhauste administratibo larri edo oso larri bat egiteagatik portuko eremuan, edo

Portuko Agintaritzan edo salgaien garraioan lan egiten duten pertsoneri edo pertsonen ondasunei kalte egiteagatik delitu edo falta bat egiteagatik.

- e) Merkataritza-zerbitzua garatzea Bilboko Portuko Agintaritzak emandako baimenean jaso ez diren gidarien, traktoreen edo atoiaren bitartez.
- f) Salgaien Lurreko Garraioaren Kontratuari buruzko azaroaren 11ko 15/2009 Legearen 41. artikuluan xedatutakoa orokorrean urratzea, urraketa horrek portuko zirkulazioko lanen garapen normalari eragin dakiokenean.

Aipatutako arrazoi horietako baten ondorioz baimena azkentzen baldin bada, ez da inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Horrek ez dio Bilboko Portuko Agintaritzari inolako betebeharrak ekonomikorik edo lan- edo kontratu-betebeharrak (edo beste motako betebeharrak) eragingo baimenduarekiko, ez eta modu subsidiarioan ere.

Baimena baliogabetzen denetik urtebete igaro ostean, interesdunak eskaera berri bat egin ahal izango du.

## **18.2. Baimenak aldi baterako etetea**

Bilboko Portuko Agintaritzak baimenak aldi batean eten ahal izango ditu, betebeharrak modu arinean urratzeagatik.

Oro har, honako kasu hauek joko dira betebeharren arau-hauste arintzat:

- a) Baimenaren titularrak zehapenen bat jasotzea portuko eremuan arau-hauste administratibo arin bat egiteagatik.
- b) Baimenaren titularraren gidarietako edozeinek, urtebetean, bi arau-hauste administratibo arin edo gehiago egin izana portuko eremuan.

Baimena eteteko prozeduran, interesdunari entzunaldia bermatuko zaio.

Baimenak gehienez ere sei hilabetez eten ahal izango dira. Epe hori igaro ostean, interesdunak baimena eskuratzeko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu beharko du berriro ere. Dena den, epe hori igaro ostean baimena eteteko arrazoiak bere horretan jarraitzen badu, baimena azkendu egingo da.

## **19. kapitulua - INDARRALDIA**

Baldintza berezi hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik hiru hilabete igarotakoan izango dira aplikagarriak, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Batzordeak aurretik onartuta.

## **20. kapitulua - ERREGIMEN IRAGANKORRA**

Egungo egoera baldintza berezien agiri honetan araututako erregimen berrira egokitzeko beharrezkoak diren eskakizun teknikoen, operatiboen eta teknologikoen ondorioz, sei hilabeteko erregimen orokorra ezartzen da, baldintza berezi hauek indarrean sartzen direnetik aurrera zenbatzen hasita, gaur egun Bilboko Portura sartzeko baimen-txartela duten pertsona juridikoek eta fisikoek dagokion baimena eskuratu dezaten, baldintza berezien agiri honetan aurreikusitakoaren arabera.